

GERNIKA-LUMO / Udal liburutegiak 31.580 bisitari izan ditu, guztira, 2009. urtean

Hilez hileko bisita kopurua aztertuz gero, martxoa izan zen liburutegia jende gehien bisitatu zuen hilabetea.

O. CABELLO

Udal liburutegiaren iazko datuen balantzea eman du ezagutzera Udaleko Kultura sailak, eta 2009an 31.580 bisitari izan zituela jakinarazi du. Bisitari kopuru handiena, gainera, martxoan zenbatu zutela zehaztu dute. Hain zuzen ere, urte osoko bisita kopuruaren %18,18 hartu zituen liburutegiak iazko martxoan: 5.500.

Liburutegiko txartela dutenen kopuruak ere gora egin duela jakinarazi du Kultura sailak, eta dagoeneko 4.384 herritarrek dutela. Izan ere, 2009an 762 lagunek atera zuten liburutegiko txartela, gehienek azaroko hilabetean (234k). Hilabete horretan, hain justu, bisita gidatuak egin zituela azaldu dute Udal arduradunek. "Horrek erakusten duenez, liburutegia ezagutzeak erabiltzea dakar, esan dute. Horrela, hiru urtean altan emandako irakurleak, maileguak eta erreserba kopuruak hirukoiztu egin dira. Hain zuzen, gaur hasi eta martxoak 4ra arte bisita gidatuak egingo ditu Udal liburutegiak, eta Allende Salazar ikastetxeak zein Lantegi Batuak-ekoek izango dute liburutegia bisitatzeko aukera.

Bestelako datuak ere ezagutarazi dituzte: 3.444 bilaketa egin ziren Internet bidez liburutegiko katalogoan, 17.433 dokumentu mailegatu zituzten eta 522 erreserba egin. Horrez gain, liburutegian 32.409 dokumentu daudela zehaztu dute.